

Iñaki Mendiguren

Gogorrrtu zigorra!?



uskal Herrian –eta Espainian– ohitu gaituzte entzutera ETaren jarduerak ez duela zergatikorik... eta horri gustu harturik-edo hemen ezerk ez du kausa eragilerik. Pen-

tsatzearen nekea eta ezerosotasuna aurrez-zen dizkigu horrek, eta denok pozik. Genero-delituak direla, zirkulazioko arau-hausteak direla, kale-borroka dela, beste edozein lege-urratze txiki edo handiren aurrean, badaezpada ez galdetu zergatik gertatzen diren –hori justifikatzea omen da eta!–. Besterik gabe, krimen edo delituak “gaiztoek, eroek, fanatikoek...” egiten dituzte; beraz, tolerantzia zero, gogortu zigorra eta... itzalerat!

Ondorioa?: “Espainian mila biztanleko preso-tasa Europar Batasuneko handiena da” (Forum Libertas: Juan Fco. Jiménez Jacinto). Horretara iristeko prozedura? Hedabide batzuek zenbait albiste “hedatzen” dituzte ozenki –aldi berean beste batzuk isilduz–, “gizarte-alarma” sortzen –edo sorrarazten– da, inkestak egin eta politikari populistek legeak eta zigorkodea gogortzen dituzte. Eta? Bada, 1990etik 2009ra bi halako gehitu dela preso kopurua Espainian, 76.000ra iristeraino, horietatik %22 preso prebentiboak.

Bada garaia geure buruari galdera batzuk egiteko: zer gizaki eta zer gizarte ari gara sortzen? Zer ekonomia, politika eta gizarte-sistema daukagu? Zer balio eta zer-nolako mundua ari gara sustatzen? Zein dira gure eredu eta jainko idoloak? Zertara bideratzen ditugu lehentasunez giza eta diru-baliabideak? Eta uste al dugu horrek guztiorrek ez duela eraginik gizabanakoengan eta giza taldeengan? Musu-truk aterako ote zaigu giza gogo hauskorren anbizio eta gurariak etengabe publizitate bidez zirikatzea, gero asetzeko modurik ez dagoenean? Eta zer egin desberdintasun iraingarrien probokazioarekin, luxuaren erakuskeria lizunarekin? Gero



DANI BLANCO

harritu egiten gara horrenbeste jende bere onetik aterata egoteaz, desorekatuta, etsiak jota, amorrusuz beterik, portaera erasokor eta bortitzekin...

Ahal den mundurik onenean ere, izango da “gaizkilerik” premiagatik –miseriak eraginda–, neurrigabeko anbizioagatik –lapur esku-leunak–, ezjakintasun edo itsukeriagatik, beldurragatik, nortasunpatologiagatik eta beste hainbat arrazoi-

rengatik. Horientzako irtenbide lehena eta ia bakarra espetxea ote da? Zertan oinarritzen da gure justizia-sistema? Gizarte-mendekuan eta zigor hutsean? Eta hori al da biktimentzako ordaina? Ez al litzateke ordain hobea gaizkile hori berreztea, –bizkaierazko– “osatzea”, berriz eroriko ez den ziurtasun handi samarraz gizarteratzea? Lortzen ote du hori egungo kartzela-sistemak, ala paradoxikoki, “gaizkile-eskola” bihurtu dira presondegiak?

Ez da oso polita esatea, baina delinkuente asko guk, gizarte gisa, dugun porrotaren *pagaburu* hutsak baino ez dira. Gaizkileek beren zorra ordaindu behar omen diote gizarteari! Eta gizarteak betetzen al ditu bere kideekiko betebeharrak: oinarrizko premien asetzea, gutxieneko berdintasun bat, eta abar, bermatzea?

Galdera askotxo, bai. Baina politikari eta gizarte-liderrek –eta denok– gehixeago gogoratu beharko genuke Marx (zaharkitua omen dago, bai, baina egia iraunkorrak ere esan zituen); eta gogoratu beharko genuke Freud (edo psikoanalisi, psikologia sakona... gure portaeraren oinarriak ulertzeko lagungarriak). Besterik ezean, gomendio bat, irakurri David Loy “zen” maisuaren liburu hau: *El Gran Despertar. Una teoría social budista* (bereziki interesgarria 6. kapitulua: *Cómo reformar a un asesino en serie*). ■

Ez da oso polita esatea, baina delinkuente asko guk, gizarte gisa, dugun porrotaren *pagaburu* hutsak baino ez dira. Gaizkileek beren zorra ordaindu behar omen diote gizarteari! Eta gizarteak betetzen al ditu bere kideekiko betebeharrak: oinarrizko premien asetzea, gutxieneko berdintasun bat, eta abar, bermatzea?